

## Kantari

*Kanta-zale gara, ez dago dudarik. Kanta ta kanta gabiltz, eten bako leia bizitan. Zarrik kanta oi eben, gazteak kanta oi dabe; bai, len ta orain kanta daroagu. Etxean kanta, zelaian kanta, eleizan kanta. Txoriak kanta daroa, baita itxasoak be. Izarrak kanta, izadi osoak kanta.*

*Eta kantatzea on dogu. Betidanik alan be. Antxiña baten, Testametu Zarreko gizaseme ta igarle ospetsuak kantari ziran, eta euren erria txundiotan ipiñi oi eben kanta ta kanta. Egiptoarrak, sumeriotarrak, txinarrak, gerkarrak, erromarrak kantari bizi izan ziran. Eta geroago —askorik ez—, gure artean be, Probentza'ko juglarakaz nastean, noiztikoak diran sekula jakingo ez doguzan bertsolariak agertu ziran. Or, Naparruko errege-jauregikoak... Ez dakigu noizkoak diran, eta esia oraindik garein erraza ta enda amaitu. Gaur be, barrizturik daukagu arein odol gogoangaria.*

*Ez, ez gara ogiaz bakarrik bizi. Kantuak be arintzen ditu gure biotz-nekeak. Oraintsu oraindik urte biko gerra latza ikusi eben Biafra'ko umetxoak ez eben ogia bakarrik bear; ez eben ogia bakarrik eskatzen: osakaiak eta tuntun-soiñua be bai. Baiña, ain urrun jo barik, gure artean be, anai arteko guda gogor aretan, umetxoak eta mugusiaugok be, ogia ta osakaiak eta kantuak eskatzen ebezan.*

*Asko abestu oi da gaur. Baiña, zelako kantak? Zerbait diñoenak? Kantuan, izan be, zerbait itsatsita itxi bear dogu. Ezer ez diñoskuna, ezta eder. Erriak kanta daroe, gureak batez be, ta zer diño kanta orren aritan? Gure amak kanta oi dabe, ta zerbait diñotsa bere lelo bizian, kuma barruan irri-barretsu begira daukan umetxoari.*

*Barriro be: zer diñoe gaurko kantak? Bai, modan dagozanak... Zer dabe kantagai? Ganorazko zerbait? Maitasuna, maitakeria, larru-min-tzezko zerbait, geienik beintzat. Zer? Europa'ko azken-abesti batza iku-si zendun? Telebixtatik emona, nunbait. Irutik bi zelai ortakoak ziran.*

Maitasuna murizten ebenak. Aurre samarrekoia izanagaitik, ona era-kusgarri edo argibide bat. Salome kantariak "Eurovision" kantatua ta azkoitiar Luis Iriondo Etxaniz'ek euskeraz ipiñia. Erderaz "Vivo cantando" eritxon.

Kantari bizi naiz,  
bide galduen zear,  
zenbat gau zure billa!

Zuri itzegin nairik,  
nairik eta ezinda.  
Orain urrean zera  
eta odola ta ametsa  
piztuak dira.

Zugatik biurtu dira  
nere malkoak  
amets argian,  
kanta gozoan;  
baiñan, zerbait gertatzen da  
gure artean;  
ikaraz nabil  
zure ondoan.

Zugatik biurtu dira  
nere malkoak  
amets argian,  
kanta gozoan.  
Ez dakit zure maitasun  
jaio berria  
noiz arteraiño  
gordeko detan.

Iñoz bai abesten yako lurraldiari, aberriari, itxaropenari, lan eta izerdiari. Baiña geienetan Eros'i erretzen yako lurrun-kedatsa; lipar batez, goiz labur batean dirauan maitasunari, putz-egiñik urtu ta ezereztu oi

danari intzentsu eskinka bizi gara. Azaletiko gauzak, nunbait; igesbideak besterik ez. Guzurra. Merezi al dau maite-gai orrek ainbeste garrasi, ainbeste geiegizko izu, orren gaiña parizta? Orrenbeste andi-mandi ta arro-puzkeri? Nik ez dot uste. Alan be...

Gaurko gizarteak, orrez gaiñera, ba-ditu beste zer batzuk, kantatzea merezi dabenak. Ezker-eskuma lar buru-auste, korapillo ta eztabaida doguz; kate gogorrez lez, ainbat oker, bidegabe ta makurrek estutzen gaitue. Ta odoletan dagoan gizarte onek, legez dagokion abesti-era begiñan. Ez nago protesta bear leuke, sakonagoa, bikaiñagoa ta eztiagoa. Ez nago protesta abestiaren aurka, baiña gure erriak merezi leuke zerbait obeago ta ja-giago dana. Musika ta bertso, zerbait obea, bai! Narru-mintzeke kanta baiño, zerbait mamiñagoa, bai!

Bizkargi

*Guzurrak.*—Iru eratako guzurrak ezagutzen doguz: 1) gauza bat ao-beroz azi edo geigitzenten dogunekoa; 2) eralkizun, aurre-kontu edo presupuestuena, ta 3) giza-zenbatza edo estadistikaena. Azkenengo au dogu, nunbait, kaltegarriena. Zergaitik? Eun diran lekuian, sarri, amar milla jarten dogulako.

\* \* \*

*Erakutsi naia.*—Txomin, beti be, gizon zerbitzaria da. Edozeiñi lagundu oi dautso, nai irakatsiz nai esku-laguntzaz.

Bein orrela egin nai izan eban lartxo edan eta ibilli enaiz-banaizkoan joian bitxi, zardaipazka edo tipu bategaz.

—Txarto egiten dozu orrenbeste edanaz —diñotsa Txomin'ek—. Ezin zara zutunik egon...

—Ez, gizon, ez —gardentzen dau «zerbelduak»—; edanaz ez dot txarto egiten; ibilli, bai, txarto nabil...